AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

Eguna: 2024ko abenduaren 26a, osteguna.

Tokia: Udalbatzarraren aretoa

Ordua: Hasteko ordua: 19:30 Bukatzeko ordua: 20:25

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Macazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.

GAI-ZERRENDA

1.- Berrestea, egoki bada, 2024ko azaroaren 28ko 950 zenbakidun alkate-dekretua. Alkate-dekretu horren bidez 2025eko egutegi fiskala onartzen da.

2.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 9/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditua transferitzeko modalitatean.

3.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 10/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.

4.- Behin-behineko onarpena ematea, egoki bada, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari.

5.- Eskariak eta galderak.

BAT.- BERRESTEA, EGOKI BADA, 2024KO AZAROAREN 28KO 950 ZENBAKIDUN ALKATE-DEKRETUA. ALKATE-DEKRETU HORREN BIDEZ 2025EKO EGUTEGI FISKALA ONARTZEN DA.

Udalbatzarrak 2024ko azaroaren 28ko 950 zenbakidun Alkate-dekretuaren berri izan du. Alkate-dekretu horren bidez 2025eko egutegi fiskala onartzen da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko irailaren 20an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

BERRESTEA 2024ko azaroaren 28ko 950 zenbakidun Alkate-dekretua. Alkate-dekretu horren bidez 2025eko egutegi fiskala onartzen da.

BI.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 9/2024 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakin du. Udalaren aurrekontu propioaren 9/2024 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta **33.100** euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko abenduaren 20an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2024ko ekitaldi ekonomikoari dagokion aurrekontu propioaren 9/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta zenbateko hau du: **HOGEITA HAMAHIRU MILA ETA EHUN (33.100 €) EURO.**

2.-JENDAURREAN JARTZEA adierazitako espedientea, arlo horri buruz indarrean dagoen araudia betez, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dagoen lekua: Idazkaritza-Kontuhartzailetza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluak zerrendatzen dituen interesdunak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Lehen aipatutako foru-arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

HIRU.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 10/2024 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udalaren aurrekontu propioaren 10/2024 zenbakidun espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta **500.987** euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko abenduaren 20an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Esnal (EH-BILDU), Santamaria (EH-BILDU), Ibarguren (EH-BILDU), Munduate (EH-BILDU), Andres (EH-BILDU), Makazaga (EH-BILDU), Solabarrieta (EH-BILDU), Lizarralde (EH-BILDU), Rementeria (EH-BILDU) eta Alguacil (EH-BILDU) guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Basurko (EAJ); guztira, **HIRU ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2024ko ekitaldi ekonomikoari dagokion aurrekontu propioaren 10/2024 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta zenbateko hau du: **BOSTEHUN MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI (500.987 €) EURO.**

2.-JENDAURREAN JARTZEA adierazitako espedientea, arlo horri buruz indarrean dagoen araudia betez, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dagoen lekua: Idazkaritza-Kontuhartzailetza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluak zerrendatzen dituen interesdunak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Lehen aipatutako foru-arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Noemi Ostolaza zinegotziak hartu du hitza, EAJ-PNVren izenean eta ordezkaritzan, eta adierazi du bere talde politikoak honengatik eman duela abstentzio-botoa: krediduak aldatzeko espediente honetan jasotako aurrekontu-partida gehienekin ados dauden arren, bere talde politikoa ez dago ados udal-kanpineko igerileku berrien obrak finantzatzeko inbertsioekin. Hori guztia, bere talde politikoak gai horri dagokionez orain arte emandako botoarekin koherente izanik.

Inaxio Alguacil zinegotziak (EH-Bildu) hartu du hitza, eta adierazi du bere talde politikoa aurreko osoko bilkuretan ere azaldu dela udal-kanpineko igerileku berriak eraikitzeko inbertsioen finantzaketari ekiteko beharrari buruz. Adibidez, EH-Bildu talde politikoa inbertsio horiei ekitearen alde agertu zen 2024ko uztaileko osoko bilkuran, bai eta konpromiso-krediduen espedientea onartu zenean ere, non aurreikusten baita obra horien exekuzioaren finantziazioa zenbait urtetan egitea, 2024ko eta 2025eko ekitaldi ekonomikoetan.

Amaitzeko, Inaxio Alguacil zinegotziak adierazi du, udal-kanpinean igerileku berriak eraikitzeko obrak finantzatzeko, udalaren diruzaintzako soberakina erabiliko dela,

331.000 eurokoa, gaitutako aurrekontu-partida lanak egiteko erritmoarekin egokitzeko.

LAU- BEHIN-BEHINEKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRARI

Udalbatzarrak Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari buruzko hirigintza-espedientearen berri izan du, behin-behineko onarpena emateko, egoki bada.

Udal honetako Udalbatzarrak, 2022ko abenduaren 22an egindako ezohiko bilkuran, besteak beste, erabaki hauek hartu zituen:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari. Mikel Iriondo Iturrioz abokatuak eta Santiago Peñalba Garmendia eta Manu Arruabarrena Florez arkitektoek idatzi dute, eta EKOLUR, Asesoría Ambiental SLL erakundearen lankidetza izan du ingurumen-ebaluazioaren arloan eta Juan Ignacio Cortés Arzallusena delineazioaren arloan.

2 .- JENDAURREAN JARTZEA 2023ko martxoaren 31 arte, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, ingurumen-azterketa estrategikoa eta indarrean dagoen antolamendua aldatzen duten esparruen mugaketaren laburpen exekutiboa, GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN, ohiko egunkarietan eta Udalaren egoitza elektronikoan iragarkia argitaratuta, interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Ingurumen-azterketa estrategikoa ere jendaurrean egongo da epe horretan, interesdunek aztertzeko eta alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Era berean, eragindako administrazio publikoei eta interesatuei kontsulta egitea, aukera izan dezaten 2023ko martxoaren 31ra arte, HAPOa eta ingurumen-azterketa estrategikoa aztertu eta oharrak aurkezteko.

Tramite horiek bukatutakoan, espedientearen kopia osoa igorriko zaio ingurumen-organo eskudunari, aginduzko ingurumen-adierazpen estrategikoa egin dezan.

3.-Era guztietako onarpen, baimen eta lizentziak **ETETEA** aurreikusitako determinazio berriek indarrean dagoen araubide urbanistikoa aldatzea badakarte. Bertan behera uzte horrek bi urteko iraupena izango du, gehienez.

4.- Lehen onarpenaren **BERRI EMATEA** sektorean eskumenak dituzten administrazio publikoei, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten.

Aipatutako hirigintza-espedientea jendaurrean egon den aldian, alegazio eta txosten hauek igorri dituzte administrazio sektorialek:

ALEGAZIO-IDAZKIEN ZERRENDA

ZENBA-KIA	SINATZAILEA	UDALEKO SARRERA-ERREGISTROA
1	Ramón Echeverria Aldaz	631/2023
2	Ion Peñagarikano Galarraga	657/2023
3	Beatriz Corta Elizondo	859/2023
4	Ramón Echeverria Aldaz	1220/2023
5	Javier Juaristi. Donostiako Udala	1536/2023
6	Alejandro Plaza Beitia	1637/2023
7	José Ángel Villagran López	1653/2023
8	Haritz Arostegi Cardona	1664/2023
9	Hector Nagore Sorabila	1677/2023
10	Mª Jesús Gil Bellota	1680/2023
11	Antonio Tena Nuñez	1698/2023
12	Gorka Hoyos Berastegui	1706/2023
13	Pedro Ayestarán Echabe	1721/2023
14	Mª Pilar Echezarreta	1769/2023

ADMINISTRAZIOSEKTORIALEN TXOSTENEN ZERRENDA.

ZENBA-KIA	SINATZAILEA	UDALEKO SA-RRERA-ERREGIS-TROA
1	Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa	478/2023
2	Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa	479/2023
3	Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa	598/2023
4	Emakunde (EJ)	868/2023
5	Hizkuntza Normalizazioko Zuzendaritza (EJ)	---
6	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza (EJ).	1176/2023

7	Bide Azpiegituretako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.	1177/2023
8	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Garraio Azpiegituren Zuzendaritza (EJ).	1320/2023
9	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Kultura Ondarearen Zuzendaritza (EJ).	1484/2023
10	Gipuzkoako Ur Kontsortzioa	1633/2023
11	Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua. Ondare Historiko-Artistikoaren eta Artxiboen Zerbitzua. Gipuzkoako Foru Aldundia	1739/2023
12	Etxebizitza Sailburuordetza (EJ)	1734/2023
13	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza (EJ).	1743/2023
14	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia	1887/2023
15	Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioa. Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusia.	1890/2023
16	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza. Gipuzkoako Foru Aldundia	1893/2023
17	Segurtasun Saila. Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza (EJ).	1895/2023
18	Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua. Ondare Historiko-Artistikoaren eta Artxiboen Zerbitzua. Gipuzkoako Foru Aldundia	1900/2023
19	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza (EJ).	2128/2023
20	URA. Uraren Euskal Agentzia	3128/2023
21	Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusia (COSTAS)	3834/2023

2024ko azaroan, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idatzi zuen taldeak (Santiago Peñalba eta Manu Arruabarrena arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak

osatua) Orioko HAPOaren berrikuspenari buruzko alegazioen eta txostenen balorazio-txostena egin zuen, eta, ondorio gisa, honako hau adierazi zuten:

"VI.- ONDORIOAK.

Aurreko epigrafeetan azaldutako kontuak aintzat hartuta, eta Udalak berak horri buruz egokitzat jotzen duena alde batera utzi gabe, honako hau proposatzen da:

1.- Esker ona guztiei.

Alegazio-egile guztiei eskerrak ematea alegazioak egiteko eta aurkezteko egindako lanagatik, alegazio guztiek laguntzen baitute Plan Orokor berria egiteko prozesua hobetzen eta aberasten eta proposamenen edukia sartzen.

Era berean, Plan Orokorra jendaurrean egon den aldian beren eskumeneko gaiei buruzko txostenak aurkeztu dituzten administrazioei ere eskerrak eman behar zaizkie.

2.- Aurkeztutako alegazioen eta txostenen balorazioa eta erantzuna.

Aurkeztutako alegazioen eta txostenen balorazioa aurreko III. eta IV. epigrafeetan banakatuta azaldutakoa da. Eta balorazio horrekin bat, honako hau proposatzen dugu:

A.- Alegazioak eta txosten horietan adierazitakoa onartzea, III. eta IV. epigrafe horietan adierazitako moduan eta irismenarekin.

Onarpen horrek justifikatzen du hasieran onetsitako HAPOko aurreikuspenen berregokitzea, onarpen horrekin bat datozen baldintzetan eta irismenarekin.

B.- Alegazioak eta txosten horietan adierazitakoa ezestea gainerako kasuetan.

3.- Beste gai batzuen balorazioa eta erantzuna.

Gai horien zerrenda eta edukia V. epigrafean azaldutakoak dira.

Hasieran onetsitako HAPOaren aurreikuspenak berriro egokitzea planteatzen da, beste gai horien onarpenarekin bat datozen baldintzetan eta irismenarekin, V. epigrafe horretan adierazitako baldintzetan.

4.- HAPOaren izapidetze-prozesuaren jarraipena.

VI. epigrafean azaldutakoa kontuan hartuta, orain planteatutako aldaketek, hasieran onetsitako HAPOan sartutako aldaketekin alderatuta, irismen mugatua eta puntuala dute, ez funtsezkoa. Hori dela eta, egokia da HAPOaren izapidetze-prozesuari jarraipena ematea, behin-behinean onartuz. "

2024ko abenduaren 23an, udal-arkitektoak nahitaezko txosten teknikoa egin du, eta bertan, besteak beste, honako hau adierazten da:

“**10. Dokumentuaren bideragarritasun ekonomiko-finantzarioa.**

Dokumentuan zehatz-mehatz aztertu dira gune bakoitzaren eraikigarritasuna, urbanizazio-kostuak, eraikuntza-kostuak, salmenta-baldintzak eta garapen-baldintzak, eta azterketa horien ondorioz, Planean jasotako jarduketa-eremu eta -unitate guztien bideragarritasun ekonomikoa justifikatu da. Lursail guztiak (Erriberak luzatzea izan ezik) garatzea eta horietan jasotako eskubideak jabeei dagozkie (Udalari legez dagokion ehunekoa izan ezik).

Erriberak handitzearen edo hilerria handitzearen finantziazioa Udalari dagokio.

Jasangarritasun ekonomikoaren azterketan, Orioko Udalak, dagokion % 15aren eta obra-lizentzien bidez, lor zitzakeen baliabideak aurreikusten dira, baita eremu horiek zaintzea eta mantentzea ere, eta egiaztatu da horiek kontserbatzeko behar diren baliabideen oreka bermatzen dela.

Hasieran onetsitako dokumentutik akats txiki batzuk zuzendu dira, eta hasieran onartutako dokumentutik behin-behineko onarpenerako osatutako dokumenturaino, egindako aldaketen ondoriozko aldaketak gehitu dira.

Ondorioz, Plan Orokorrean aurreikusitako jarduera-eremu guztien bideragarritasuna eta jasangarritasuna egiaztatzen da.

11. Udalaz gaindiko araudia betetzea

Gure ustez, plano guztietan eta hirigintza-eremuen fitxa partikularretan behar bezala jaso dira bai itsasertzeko jabariak eta portuetako jabariak.

Era berean, uste dugu udalaz gaindiko araudia kontuan hartu dela eta behar bezala sartu direla bai planoetan bai araudiaren edukietan.

Zehazki, uste dugu behar bezala integratu eta kontuan hartu direla Kostaldeei buruzko Legea, Portuei buruzko Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, 2019an onartutako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, Lurralde Antolamenduko Plan Sektorialak, Urola Kostako Lurralde Plan Partziala eta hirigintzari eragiten dioten gainerako legeak (telekomunikazioak, abiazio zibila, jasangarritasun energetikoa...)

Behin-behineko onarpenaren dokumentuan, udalaz gaindiko erakundeek egindako txostenetan adierazitako beharrezko aldaketak jaso dira, hasierako onarpenaren dokumentuari dagokionez.

12. Erantzuna jasotako alegazio eta txostenei.

Epearen barruan, aurrekarietan zehaztu den bezala, 13 alegazio jaso dira eta beste 5 epez kanpo.

Guztiak aztertu eta kontuan hartu dira.

2023ko azaroan-2024ko azaroan izendatutako erredakzio-taldearen txostenean, Udalak hartutako erabakien esparruan jasotako alegazioei erantzuteko proposamenak jasotzen dira.

Alegazioei behar bezala erantzun zaie txosten horretan.

Udalaz gaindiko txostenei dagokienez, 21 erantzun jaso dira. Horiek dira txostenean sartu direnak.

Jasotako txostenen ondorioz, aldaketa hauek egin dira:

- Oribazar eremua lurzoru urbanizaezin gisa sailkatu da.

- Lurzoru urbanizaezinaren mugaketa jakin batzuk osatu/doitu dira.

- Antilla hotelerako aurreikusitako handitzea bertan behera geratu da.

- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak 2023ko apirilaren 12an emandako txostenari jarraituz, ustiategiak ezartzeko gutxieneko lurzatia legez ezarritako gutxieneko ustiapen-unitatera murrizten da.

- Udal Katalogoa osatu da.

13. Ondorioak

Dokumentua idazteaz arduratu den taldeak egindako behin-behineko dokumentua osatutzat jotzen da, eta legez ezarritako dokumentuak barne ditu.

Behin-behinean onartzeko prozedurari dagokionez, esan daiteke oro har bete egiten dela 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.

Hasieran onartu zen dokumentutik behin-behineko dokumentura egindako aldaketa nagusia, duen eraginagatik, Mutiozabal gunean Aita Lertxundi 42rako jaso den proposamena da. Aukera hori hartuta zegoen Aurrerapenaren dokumentuan, eta zenbait aukera aztertu ziren; horien artean dago orain aurreikusten dena. Beraz, jada aztertu dira ingurumenean duen eragina eta beste ondorio batzuk (generoa, zarata, hizkuntza).

Hori kontuan hartuta, eta kontuan hartuta hartutako gainerako erabakiek HAPOaren eskalan izaera txikia dutela eta dokumentuaren txostenean bertan behar bezala karakterizatuta daudela, uste da ez dela beharrezkoa azalpen-aldi berri bat irekitzea.

Hasierako onarpenaren dokumentuari egindako aldaketak:

Lurzoru urbanizaezinean:

1.- Kostaldeen Zuzendaritza Nagusitik jasotako txostenari jarraituz, Oribazar eremua lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen da.

2.- Lurzoru urbanizaezinean, erabilera publikoko eta oinezkoentzako enborreko edo oinarrizko sare bat ezartzen da, eta oinezkoentzako sarea hirigintza-araubidean integratzen da.

3.- 5 fitxa osatu dira lurzoru urbanizaezinean dauden 5 eremu berezien ezaugarriak eta xehetasunak zehazteko. Oro har, egungo egoera definitzeko eta kasu puntualetan handitzeko gaitasunak zehazteko egin dira.

4.- Ustiategiak ezartzeko gutxieneko lurzatia legez ezarritako gutxieneko ustiapen-unitatera murriztu da, erakunde eskudunen txosten xehatu batek adierazitakoari jarraituz.

5.- Aldaketa txiki bat egin da Eizmendi inguruko lurretan baso-ingurunearen eta trantsizioko landa-paisaiaren mugaketan.

Hiri-lurzoruan:

1.- A-1 Hirigune historikoa eremuko D-10 fitxan aldaketa bat aurreikusten da Almirante Oa 8an, 80/2022 Dekretuan ezarritako bizigarritasun-baldintzak behar bezala betetzeko aukera izateko, eta eraikigarria ez den kanpo espazio pribatu bat egokitu da. Horrekin, espazio publikoa lortzeaz gain, haren bideragarritasun tekniko-ekonomikoa bermatu nahi izan da.

2.- A-2 Mutiozabal eremuan Aita Lertxundi 42 eremua garatzea aurreikusi da. Aurrerapen-dokumentuan alternatiben artean jada aztertu zenez, aldez aurretik aztertu eta zehaztu ziren eremu horri dagozkion ingurumen-inpaktuak. Uko egin zitzaion aukerari, hasierako onarpeneko dokumentuan jabeek industria-erabilerarekin jarraitzeko asmoa agertu zutelako. Orain, berriz, haren egoera aldatu egin da eta, beraz, berrikusi egin da.

3.- A-3 eremuan, Kultur Etxean ekipamendu gisa bizitegi-erabilera hartzeko aukera aurreikusten da.

4.- A-6 Erriberak eremuan, hasierako onarpenaren dokumentuan jaso zegoen errepideen erregularizazioaz gain, Kosta tailerra hegoalderantz zabaltzeko aukera aurreikusten da. Horretarako, hegoaldeko espazio librea tokiko sistema gisa sailkatu da, eta egiaztatu da hori gabe ere sistema orokorreko espazio libreen betekizuna bermatzen zela.

5.- A-11 Hondartza eremuan, Antilla hotelerako aurreikusitako eraikigarritasun-gehikuntza ezabatu da, Kosten Zuzendaritza Nagusiak igorritako txostena kontuan hartuta.

6.- A-15 eremuan, Arozenan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren konpromisoaren bidez, aukera aprobetxatu da eraikina dotazio gisa erosteko, eta, horretarako, hasierako onespenaren dokumentuan zehaztutako eraikigarritasunak eta antolamendu xehatuak berregokitu dira.

Araudi Orokorrean:

- Bizitegi-erabilerara bideratutako lurzati eta eraikinetan turismo-erabilerak mugatzeko neurriak zehaztu dira, Orioko bizitegi-egoeraren diagnostikoaren ondorioak kontuan hartuta.

- Arau batzuetan, hala nola sotoko erabileretan, teilatupean etxebizitzetarako azaleretan edo beheko solairuetako altueretan, aldaketa txikiak/osagarriak egin dira.

Katalogoan:

Udalaz gaindiko babes-elementu guztiak jasotzeaz gain (udalaz gaindiko erakunde eskudunek zehaztutako zehaztapenekin), hasierako onespen-dokumentuan zehaztu ez ziren udal-babeseko 3 elementu definitu dira:

- San Juan ermita

- Erretzabal baserria

- Martin Portu baserria

Balorazio orokorra:

... Txostenean jasotako guztia kontuan hartuta, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren behin-behineko onarpenaren aldeko txostena egiten dut, txostenean zehar hirigintza-eremu desberdinetarako egin diren ñabardurekin.

14.- Behin-behineko onarpenaren ondorengo izapideak

Udalbatzarrak dokumentua behin-behinean onartu ondoren, behin betiko onarpena Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio, eta aldez aurretik hau beharko da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen aldeko txostena jaso beharko da.

- Ingurumen-erakunde eskudunek planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruz egindako aldeko txostena jaso beharko da."

Ondorio gisa, lehen aipatutako txosten teknikoen eta Udaleko idazkariaren iritziz, Orioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrari buruzko hirigintza-dokumentuak bete egiten du gaiari dagokionez indarrean dagoen hirigintza-legedia. Hori kontuan hartuta, bidezkoa da Udalbatzarrak erabakitzeko aurkeztea erreferentziako hirigintza-dokumentuaren behin-behineko onarpena, jendaurreko erakustaldian jasotako alegazio eta proposamenak osorik edo partzialki onartuz edo ezetsiz, egokitasun-irizpideetan eta hirigintza-antolamenduko irizpideetan oinarrituta, Hirigintzako Batzordeak irizpena eman ondoren, eta Udalbatzarreko kideen legezko kopuruaren (hamahiru kide) gehiengo osoaren quorumarekin; hau da, gutxienez baiezko 7 boto behar dira erreferentziako hirigintza-dokumentua behin-behinean onartzeko, eta, ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzeko, hirigintza-espedientea bideratu eta gero, hala badagokio, behin betiko onartzeko. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txostena egin beharko du eta gaiari dagokionez eskumena duen ingurumen-administrazioak planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin beharko du.

Ikusita Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta lurraldea antolatzeko planak eta lurralde-antolamenduko

planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan xedatutakoa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta ikusita jendaurrean jartzearen ondoriozko emaitza eta gaiari dagokionez eskudunak diren erakunde publikoek egindako txostenak, eta Barne Antolaketa batzordeak proposatuta, 2024ko abenduaren 20an emandako irizpenaren bidez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Anuska Esnal Oliden (EHBILDU), Ainara Munduate Iguaran (EHBILDU), Xabier Ibarguren Azkue (EHBILDU), Olatz Santamaria Bereziartua (EHBILDU), Nagore Rementeria Argote (EHBILDU), Bittor Andres Alkorta (EHBILDU), Iñaki Makazaga Urdangarin (EHBILDU), Lohitzune Solabarrieta Odriozola (EHBILDU), Iosu Lizarralde Ibarbia (EHBILDU), Inaxio Alguacil Barrenetxea (EHBILDU) guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzioak: Noemi Ostolaza Arkauz (EAJ-PNV), Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ-PNV) eta Jon Basurko Sarasua (EAJ-PNV); guztira, **HIRU ABSTENTZIO**]:

1.- ONARTZEA ETA EZESTEA jendaurreko erakustaldian aurkeztutako alegazioak eta proposamenak, Orioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idatzi duen taldeak egindako Orioko HAPOaren berrikuspenari buruz aurkeztutako alegazioen eta txostenen balorazio-txostenean jasotako zentzuan, eta udal-arkitektoak egindako txostenean jasotako zentzuan, eta Barne Antolaketa batzordeak 2024ko abenduaren 20an emandako irizpena ikusita.

2.- BEHIN-BEHINEKO ONARPENA EMATEA Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari, hasierako onarpenaren erabakiari dagokionez funtsezko aldaketarik egin gabe eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 28. artikuluan xedatutakoa betez.

3.- IGORTZEA Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren hirigintza-espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari, gehienez ere hiru hilabeteko epean txostena egin dezan. Eskatutako txosten hori zuzenean jakinaraziko dio kide anitzeko organo horrek Orioko Udalari, planaren izapideekin jarraitzeko.

4.- IGORTZEA erreferentziako hirigintza-espedientea eskumena duen ingurumen-organoari, ingurumen-adierazpen estrategikoa egin dezan. Gehienez ere bi hilabeteko epean eman beharko du, espediente osoa jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

5.- IGORTZEA erreferentziako hirigintza-espedientea Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Gipuzkoako Kostaldeen Zerbitzu Probintzialera, Kostaldeei buruzko Legearen 112.a) eta 117.2 artikuluetan aurreikusitakoaren araberako txostena egin dezan, behin betiko onartu aurretik.

Martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 29. artikuluan xedatutakoa betez, Gipuzkoako Foru Aldundia izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena eta ingurumen-ebaluazio estrategikoaren emaitza ikusita, hiru hilabeteko epean, erreferentziako Plan Orokorra behin betiko onartuko duena, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostenetik eta

ingurumen-ebaluazio estrategikoaren emaitzatik eratorritako baldintzekin, eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiak aurretik txosten sektoriala egin ondoren.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Olatz Santamaria zinegotziak, EAJ-PNVren izenean eta ordezkaritzan, hartu du hitza eta hau adierazi du:

- Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko prozesua luzea eta konplexua dela, bai edukia zehazteari dagokionez, bai tramitazioari dagokionez. Izan ere, tramitazioak 10 urtetik gorako iraupena du, eta, beraz, bere talde politikoari eskerrak eman besterik ez zaio geratzen izapideetan parte hartu duten eragileek (zinegotziak, teknikariak...) egindako lanagatik.

- Adierazi du Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren edukian alderdi positibo asko daudela, hala nola klima-aldaketari egokitzeko araudia, eremu degradatuak biziberritzea, Arozena antolatzea, Aizperro industrialdea, etab., guztiak ere herritarren beharrak asetzeko.

- Bestalde, badira Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren edukiaren alderdi negatibo batzuk, hala nola eraikuntza-dentsitate handiegia egotea Dike, Arozena eta Mutiozabal esparruetan, are gehiago kontuan hartuta Orioko udalerriko 292 etxebizitza-eskatzaileetatik 215 alokairu-etxebizitzen eskatzaileak direla.

  Era berean, adierazi du beste alderdi negatibo bat Kultur Etxerako aurreikusitako bizitegi-erabilerako aukera dela.

Jarraian, Olatz Santamaria zinegotziak hartu du hitza EH-Bilduren izenean eta ordezkaritzan, honako hau adierazteko:

- Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra tramitatzeko prozesua 2013an hasi zela, eta azken bi urteetan bilerak/saioak egin direla hilean behin eta, batzuetan, hamabost egunean behin, planaren edukia eztabaidatu eta ebazteko.

- Etxebizitzen eta kultura-ekipamenduen premia-planak egin direla, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren edukia aberasteko eta osatzeko.

- Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartzeko eskumena duen organoa Gipuzkoako Foru Aldundia dela.

  Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren edukia etorkizunera begira proiektatzen dela, hamabost eta hogei urte bitarteko epera begira. Hala, Orioko

udalerria hirigune historikoan hasten da, gero Eusko Gudarien kalera hedatzen da eta Erriberak eremurantz jarraitzen du. Han, behe-solairuan etxebizitzak egitea aurreikusten da, baita 3-4 solairuko etxebizitzak ere, logela-hiriaren itxura eman dezaketenak, eta, azkenik, Antilla hondartzaren eremurantz hedatzen da.

Bestalde, Orioko itsasadarraren hegoalderako luzapenak daude aurreikusita. Hau da, Mutiozobal eta Arin eta Embil esparruetan, itsas-lehorreko jabari publikoa berreskuratzea eta Erriberako pasealeku berriak egitea aurreikusten da.

Zenbait jarduketa egitea aurreikusten da Ibai-Ondon eta Anibarko Portuan, baita Dike eta Arozena esparruetan ere. Azpimarratzekoa da Arozena esparruan zuzkidura-etxebizitzak handitu egin direla, halako moldez non aipatutako jarduketak lurzoru urbanizagarrian eta hiri-lurzoruan aurreikusten diren, eta ez lurzoru urbanizaezinean, “Kosta tailerra” eraikineko lurzati txiki batean izan ezik.

Orioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren edukian hainbat indargune jasotzen dira: ekipamenduen sustapena, udal-hilerria handitzea eta “Kosta tailerra” egokitzea.

Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra sustatzean 10-15-20 urtez indarrean egoteko egin da.

Jarraian, Anuska Esnal alkateak hartu du hitza, EH-Bilduren izenean eta ordezkaritzan, honako hau adierazteko:

- Orioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra behin-behinean onartzeko egun hau egun historikoa da, baina ezin da aldi berean mezarik ematen eta kanpaiak jotzen egon.

  Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan, bizitegi-lurzoruaren kuantifikazioari dagokionez, Orioko udalerrirako 512 etxebizitza berri aurreikusten dira gutxienez, eta 1.300 etxebizitza gehienez, nahiz eta Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean 532 etxebizitza berri aurreikusten diren, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan jasotakoen oso azpitik.

- Ezin da fokua hirigintza eraikigarritasunean soilik jarri, epe laburrean Orioko udalerriak ekipamendu ugari izango baititu. Horien artean, Kulturaren Plan Estrategikoa nabarmendu behar da, non Kultur Etxerako bizitegi erabilera aurreikusten den, ekipamendu komunitarioaz bestelakoa, udal-liburutegia txiki geratu delako, besteak beste.

Ondoren, Noemi Ostolaza zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du Kultur Etxerako bizitegi-erabileraren planteamendu berri hori oso berria eta presazkoa dela, eta, ondorioz, EAJ-PNV talde politikoak defendatzen du zuzkidura eta ekipamendu komunitario gisa jarraitzea.

Azkenik, Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ-PNV) hartu du hitza, eta adierazi du Orioko Udalerriko Antolamendu Plan Orokorraren tramitazioa oso luzea izan dela eta asko kostatu dela, eta iritzi kontrajarriak izan arren, gai horretan eskumena duten udal-teknikariek (udal-idazkariak eta udal-arkitektoak) eta erredakzio-taldeak (bereziki, Mikel Iriondo abokatuak) egindako lana eskertzea besterik ez zaiola geratzen, eta bereziki eskertu du Olatz Santamaria zinegotziak egindako lana.

BOST.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, alkateak osoko bilkura bukatutzat emateko agindu du, eta adierazi du Orioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren behin-behineko onarpena Olentzeroren opari ona dela, eta, aldi berean, urte berri zoriontsu eta oparoa opa duela, gaurko arratsaldeko zortziak eta hogeita bost direla. Nik, Udaleko idazkariak, ZIURTATZEN DUT ETA FEDE EMATEN DUT.

ALKATE-PRESIDENTEA, **IDAZKARIA,**